

Irakur ezazu testua:

FREDI ASTOA



Agus abeltzaina da. Baserrian bizi da bere animaliekin.

Azken egunetan oso kezkatuta dago, Fredi astoak gauza oso arraroak egiten dituelako.

Pasa den astean, azokara joan zirenean, Fredi

astoak zuhaitz bat jo eta lurrera erori zen. Zauri bat egin zuen buruan.

Gaur udaltzaina etorri zais Agusi oso haserre.


Fredi astoak bideko seinale guztiak hondatu dituela esan dio.



Agus oso arduratuta geratu da. Azkenean, albaitarienera eraman du Fredi astoa.

Albaitariaren izena Susana da, eta Agusen lagun mina da. Konponbidea bizkor-bizkor aurkitu du Susanak: Fredi

astoak betaurrekoak behar ditu!



Frediri betaurrekoak jarri dizkiote. Orain, denak daude poz-pozik: astoa, Agus, udaltzaina eta Susana.

1. Erantzun galdereei:

A. Non bizi da Agus?

Agus bizi da.

B. Norekin bizi da baserrian?

Baserrian bizi da.

C. Norengana eraman du Agusek astoa?

Agusek eraman
du astoa.

D. Nola du izena albaitariak?

Albaitariak du izena.

E. Zer jarri dio albaitariak Fredi astoari?

Albaitariak Frediri jarri
dizkio.

2. Esan egia (E) ala gezurra (G) den.

☐ Agus arrantzalea da.

☐ Albaitaria mutila da.

☐ Agus baserrian bizi da.

☐ Susana udaltzaina da.

☐ Fredi astoak bideko seinaleak hondatu ditu.

☐ Astoak betaurrekoak behar ditu.

3. Marka itzazu ✓ batekin testuan agertzen diren hitzak

Astoa		Arrantzalea		Azoka	
Baserria		Mendia		Harria	
Erizaina		Albaitaria		Igeltsua	
Zauria		Ospitalea		Betaurrekoak	

4. Hutsuneak bete:

Agus bizi da bere .

Udaltzaina joan da oso .

Fredi astoak bideko guztiak hondatu ditu.

Agusek astoa eraman du.

Albaitariaren izena da.

Fredi astoari jarri dizkiote.

Orain denak daude pozik-positik: .

, eta .